



LAN-LEGEPEKO KOLEKTIBOAK (EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILA)

HAUTESKUNDE SINDIKALAK
2018ko abendutik 2019ko martxora

POSTAZKO BOTOA EGITEKO JARRAIPIDEAK

Hautesleren bat bozketaren datan botoa emateko eskubidea duen tokian ez badago, postaz eman ahal izango du botoa, hauteskunde-mahaiari aldez aurretik jakinarazi ondoren. Hauteskundeak deitzen diren dataren hurrengo egunetik bozketa egin baino bost egun lehenagora arte egin beharko du jakinarazpena.

Eskaerak helbide honetara bidaliko dira:

Hauteskunde-Mahaiak:..... Lurralde:.....
Sindikatuetik Harremanetarako Zerbitzua
Hezkuntza Saila
Donostia-San Sebastián
01010 Vitoria-Gasteiz

Jakinarazpena posta-bulegoen bidez egingo da, betiere gutun-azal irekian aurkezten bada, postako funtzionarioak, ziurtatu aurretik, data eta zigorua jartzeko. Funtzionario horrek nortasun-agiri nazionala aurkeztea exijituko dio interesatuari, haren datu pertsonalak eta bi agirien sinadurak bat datozela egiaztatzeko.

Mahaiak jakinarazpena egiten duena hautesleen zerrendan dagoela egiaztatuta, eskaera idatziko du eta boto-paperak eta bozkarena sartu behar duen gutun-azala bidaliko zaizkio.

Hautesleak aukeratzen duen boto-paperak bidalitako gutun-azalean sartu eta itxiko du. Halaber, gutun-azal hori, NANaren fotokopiarekin batera, hauteskunde-mahaiak posta ziurtatuaren bidez bidaliko duen beste gutun-azal handiago batean sartuko du.

Hauteskunde-korrespondentzia botazioak bukatu ondoren jasotzen bada, ez da botoa zenbatuko eta hauteslea ez da boto-emailetzat joko. Gutun-azala, ireki gabe, suntsituko da. Horrela gertatu dela jasota agertuko da.

Dena den, botoa postaz ematea erabaki duen hauteslea hauteskundearen egunean badago eta berak botoa ematea erabaki badu, Mahaiari jakinaraziko dio. Mahaiak, botoa eman ondoren, postaz bidali duena entregatuko dio, jaso bada. Kontrako kasuan, jasotzen denean, suntsituko da.